LARRAULGO UDALA
(GIPUZKOA)

**2024ko ABENDUAREN 20an, LARRAULGO UDAL PLENO ARETOAN EGINDAKO OHIKO UDALBATZAREN AKTA**

2024ko abenduaren 20an, Larraulgo Udaletxeko Pleno Aretoan, eguerdiko 12:00 orduetan, Maite Arana Perez Alkatearen Lehendakaritzapean, behean aipatzen diren zinegotziak biltzen dira.

ZINEGOTZIAK: Maria Pilar Cortajarena Sorarrain
Jose Antonio Rodriguez Rodriguez
Vicente Garcia Momblona
Jose Agustin Arrieta Eguiguren
Ander Iturri Torrea

BERE EZIN ETORRIA AZALTZEN DUTE: Maria Isabel Vaquero Montero

Bertan dago, egintzaz fede emateko Ane Gomez Urteaga Idazkari-kontuhartzailea.

…//…

Alkate-lehendakari andreak bilerari hasiera ematen dio, ondorengo gaiak tratatzen direlarik:

1. **Ondoren adierazten diren Udalbatzarretako aktak onestu, hala badagokio/ Aprobación, si procede de las siguientes actas Plenarias:**
   - **2024ko azaroaren 25ean egindako ohiko bilkura/ Sesión ordinaria de fecha 25 de noviembre de 2024.**
2. **Alkatetza ebazpenen berri ematea/ Dación de cuenta de los decretos de Alcaldía.**
3. **Fakturak eta ordainketak/ Pagos y facturas.**
4. **2025 Ekitaldirako Udal aurrekontu orokorraren espedienteari hasierako onespena ematea, hala bada./ Aprobación inicial del expediente del presupuesto general del Ayuntamiento para el ejercicio 2025.**
5. **5/2024 zenbakia duen Kreditu aldaketaren hasierako onespena./ Aprobación inicial de la modificación de créditos número 5/2024.**
6. **Beste batzuk/Otros.**
7. **Erregu, galderak eta mozioak/Mociones, ruegos y preguntas.**

…//…

***LEHENENGO PUNTUA***
**ONDOREN ADIERAZTEN DEN UDALBATZARREKO AKTA ONESTU, HALA BADAGOKIO**

- 2024 urteko azaroaren 25ean egindako Udalbatzaren ohiko bilkurako akta. Irakurri ondoren udalbatzak onesten du, Ander Iturri zinegotziaren abstentzioarekin, aurreko bilkuran egon ez zegoelako.

LARRAULGO UDALA
(GIPUZKOA)

***BIGARRENGO PUNTUA***
**ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA**

Ondoren, Udaleko Idazkari-Kontuhartzaileak adierazten du 2024 urteko 53/2024tik 55/2024ra Lehendakari Ebazpenak eman direla. Bertaratuak jakinaren gainean geratu direlarik.

***HIRUGARRENGO PUNTUA***
**FAKTURAK ETA ORDAINKETAK**

Alkate-Lehendakari andreak ondorengo faktura zerrenda aurkeztu du:

| | |
|---|---|
| BETZAIDA URTAZU | 105,00 |
| BETZAIDA URTAZU | 119,70 |
| LANKU | 680,75 |
| SETALDE | 72,70 |
| MIRARI ERRANDOSORO | 188,77 |
| TOLOMENDI | 1.045,29 |
| TELEFONICA | 319,92 |
| MIRARI ERRANDOSORO | 1.289,86 |
| MIRARI ERRANDOSORO | 1.289,86 |
| SECURITAS DIRECT | 55,04 |
| SECURITAS DIRECT | 54,39 |
| OSCAR GALINDO | 133,10 |
| ITZIAR EIZAGIRRE | 58,36 |
| INFOBIBLIOTECAS | 95,24 |
| PENS | 170,84 |
| MAQUELSA | 44,30 |
| BABESA SUZAI | 101,92 |
| IKASIGROUP | 233,34 |
| ZU ETA BIOK | 1.819,57 |
| KIROLZER | 53,30 |
| TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA | 1.492,10 |
| KATILLU TXULO ELKARTEA | 256,78 |
| DA CAPO | 695,75 |
| TEK LARRAUL | 110,11 |
| IPARFIBRA | 289,75 |
| EBA ERKIZIA | 1.345,54 |
| ROTULOS VICENTE | 943,80 |
| ESTANISLAO JAUREGUI | 293,85 |
| TELEFONICA | 140,75 |
| EKILUZ | 178,97 |

| | |
|---|---|
| EKILUZ | 247,83 |
| EKILUZ | 27,94 |
| EKILUZ | 59,48 |
| EKILUZ | 85,61 |
| JOSU JAUREGI | 169,40 |
| AGELL ARGILES | 350,00 |
| TELEFONICA | 10,41 |

Udalbatza honek, **aho batez** hurrengoa,

ERABAKITZEN DU

BAKARRA.- Aipaturiko fakturak, denera **14.629,32** Eurotako kopurua osatzen dutenak onartzea.

***LAUGARREN PUNTUA***
**2025 EKITALDIRAKO UDAL AURREKONTU OROKORRAREN ESPEDIENTEARI HASIERAKO ONESPENA EMATEA, HALA BADA**

Ikusirik Udaleko behin behineko Idazkari–kontuhartzaileak prestatu duen 2025 ekitaldirako udal aurrekontuaren aurreproiektuaren espedientea, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak xedatutako moduan eta aurreikusitako eranskinekin. Ondorengo dokumentuekin osaturikoa:

-Larraulgo Udaleko aurrekontua.
-Plantila organikoa eta Lanpostu zerrenda.
-Aurrekontu orokorra betearazteko oinarriak.
-Memoria.
-Txostenak.
-Eranskinak.

Ikusirik Udaleko behin behineko Idazkari-Kontuhartzaileak 2024ko abenduaren 13an egindako txostenean dioena.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA.- Larraulgo Udaleko 2025 urteko aurrekontu espedientea (Aurrekontua, Plantila Organikoa, Lanpostu zerrenda, Aurrekontu orokorra betearazteko oinarriak, memoria, txostenak eta eranskinak) behin-behingoz onartzea **734.241,23** eurotako kantitatean. Horren desglosea kapituluetan honako hau izanik:

| **SARRERAK** | **734.241,23 €** |
|---|---|
| A) ERAGIKETA ARRUNTAK | |
| 1. Kap. Zuzeneko Zergak | 54.000,00 |
| 2. Kap. Zeharkako Zergak | 3.000,00 |
| 3. Kap. Tasak eta bestelako zergak | 48.030,00 |
| 4. Kap. Transferentzia arruntak | 474.875,00 |
| 5. Kap. Ondare Sarrerak | 5.500,00 |
| B) KAPITAL-ERAGIKETAK | |
| 6. Kap. Inbertsio errealak besterengan. | 0,00 |
| 7. Kap. Kapital Transferentziak | 148.836,23 |
| 8. Kap. Finantza aktiboak | 0,00 |
| 9. Kap. Finantza Pasiboak | 0,00 |

| **GASTUAK** | **734.241,23 €** |
|---|---|
| A) ERAGIKETA ARRUNTAK | |
| 1. Kap. Pertsonal gastuak | 129.750,00 |
| 2. Kap. Gastuak ondas.arrunt.eta zerbitz. | 237.270,00 |
| 3. Kap. Finantza gastuak | 2.400,00 |
| 4. Kap. Transferentzia arruntak | 86.925,51 |
| B) KAPITAL-ERAGIKETAK | |
| 6. Kap. Inbertsio errealak | 261.695,72 |
| 7. Kap. Kapital Transferentziak | 8.200,00 |
| 8. Kap. Finantza aktiboak | 0,00 |
| 9. Kap. Finantza pasiboak | 8.000,00 |

BIGARRENA.- 2025eko aurrekontu espedientea bideratzeko izapidetzek aurrera eramatea.

HIRUGARRENA.- Udal Aurrekontu Orokorraren espedientea (Aurrekontua, Plantila Organikoa, Lanpostu zerrenda, Aurrekontu orokorra betearazteko oinarriak, memoria, txostenak eta eranskinak) 15 laneguneko epean jendaurrean jarriko da, interesatuek bidezko iritzitako errekurtso eta alegazioak tartekatzeko, horretarako Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da. Inongo erreklamaziorik gabe igarotzen bada epea, behin-betiko onartutzat joko da aipatutako dokumentua, beste akordiorik hartu gabe.

LARRAULGO UDALA
(GIPUZKOA)

***BOSTGARRENGO PUNTUA***
**5/2024 ZENBAKIA DUEN KREDITU ALDAKETAREN HASIERAKO ONESPENEA.**

Larraulgo Udal honetako Aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientea irakurri da.

Idazkari-Kontuhartzaileak egindako txostenak dioenez, aipatutako espedientea aplikagarria zaion araudiari egokitzen zaio, eta zehazki Gipuzkoako Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 34. artikuluan ezarritako beharkizun eta tramiteei.

Eztabaidatu ondoren, Udalbatza honek, aho batez, honako hau

ERABAKITZEN DU:

LEHENA**:** Larraulgo Udal honen aurtengo ekitaldiko Aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientea onestea, proposamenaren eta ondoko kapitulukako laburpenaren arabera:

## KREDITU GEHIGARRIEN PROPOSAMENA

Udal zerbitzuek dituzten premiei eta obligazioei aurre egiteko, beharrezkoa da hainbat gastu berehala egitea. Izan ere, horiek atzeratuz gero sortuko litzatekeen kalteak eragin nabarmena izango luke zerbitzuen kalitatean. Aurrekontuaren exekuzioaren arabera, ordea, gastu partidetan ez dago nahiko krediturik aipatutako gastuei aurre egiteko. Ondorioz, kredituak sortzeko edo, hala badagokio, gehitzeko proposatzen da, ondoko taulako xehetasunaren arabera:

| **Gastuen partida** | Azalpena | **Kredituak** | | |
|---|---|---|---|---|
| | | **Egungoak** | **Aldaketak** | **Behin betikoak** |
| 1 0000.160.153.40.01 2024 | GIZART.SEG.PERTS.LABOR.OBR. BRIG. | 1.200,00 | 4.000,00 | 5.200,00 |
| 1 0000.212.165.00.02 2024 | AZPIEGITURA GASTUAK: ARGITERI PUBLIKOA | 1.400,00 | 900,00 | 2.300,00 |
| 1 0000.226.338.00.06 2024 | HERRIKO JAIAK | 21.000,00 | 1.700,00 | 22.700,00 |
| 1 0000.227.332.10.07 2024 | AZTERK. ETA AHOLKULARITZA: KULT.KIROL.JA | 14.500,00 | 5.500,00 | 20.000,00 |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| 1 0000.210.920.00.01 2024 | AZPIEGIT.ETA OND.GAST.UDALETXEA | 1.500,00 | 300,00 | 1.800,00 |
| 1 0000.231.912.00.01 2024 | GOI-KARGUEN DIETA,LOKOMOZIO,... | 13.000,00 | 3.000,00 | 16.000,00 |
| 1 0000.227.942.00.07 2024 | AHOLK.AZTERK.ETA TEKNIK: DIPUTAZIOA | 500,00 | 300,00 | 800,00 |
| 1 0000.421.162.30.01 2024 | TOLOS.MANKOMUNITATEA.HOND.TRATAM. | 2.000,00 | 1.100,00 | 3.100,00 |
| 1 0000.422.430.00.01 2024 | BESTE ENTIT.EKARP.TOLOSALDEA GARAT. | 6.200,00 | 1.200,00 | 7.400,00 |
| 1 0000.422.920.00.01 2024 | BESTE ENTIT.EKARP.TOLOMENDI. IKT | 3.900,00 | 300,00 | 4.200,00 |
| 1 0000.481.230.20.01 2024 | VALENTZIAKO HONDAMENDIEI AURRE EGITEKO L | 0,00 | 500,00 | 500,00 |
| 1 0000.623.153.40.01 2024 | HERRI LANETARAKO MAKINARIA | 0,00 | 600,00 | 600,00 |
| 1 0000.642.151.00.01 2024 | PLAN OROKORRA | 40.000,00 | 9.005,00 | 49.005,00 |
| 1 0000.721.161.00.01 2024 | UR KONTSORTZIOA | 8.200,00 | 134,00 | 8.334,00 |
| 1 0000.685.933.00.01 2024 | INBERTSIOAK: HERRI OSTATUKO MOBILIARIOA | 7.000,00 | 1.500,00 | 8.500,00 |
| 1 0000.422.323.00.01 2024 | BESTE ENTITAT.EKARPENAK: GURASO ELKARTE | 2.500,00 | 1.120,00 | 3.620,00 |
| 1 0000.227.920.00.01 2024 | GARBIKETA ZERBITZUA. UDALETXEA | 4.000,00 | 500,00 | 4.500,00 |
| 1 0000.210.333.00.01 2024 | AZPIEGIT.ETA OND.GAST.KULTURETXEA | 1.800,00 | 200,00 | 2.000,00 |
| 1 0000.222.920.00.01 2024 | TELEFONO BIDEZKO KOM.UDALETXEA | 3.200,00 | 1.133,00 | 4.333,00 |
| 1 0000.226.337.20.06 2024 | JARDUERA KULTURALAK: UDALEKUAK ETA JARD. | 6.000,00 | 1.400,00 | 7.400,00 |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| 1 0000.933.011.00.01 2024 | MAILEGUEN AMORTIZAZIOA | 8.000,00 | 0,10 | 8.000,10 |
| 1 0000.221.161.00.02 2024 | UR HORNIDURA | 22.000,00 | 700,00 | 22.700,00 |
| 1 0000.221.165.00.01 2024 | ARGI HORNIDURA: ARGITEGI PUBL. | 2.500,00 | 354,00 | 2.854,00 |
| | | | | |
| | **GUZTIRA** | 170.400,00 | 35.446,10 | 205.846,10 |

| Kod. | Partida | Azalpena | Zenbatekoa |
|---|---|---|---|
| c | 2 0000.720.151.00.01 2024 | DIPUTAZIOA. PLAN OROKORRA | 6.098,78 |
| a | 2 0000.870.000.00.01 2024 | GERAKINAK | 29.347,32 |
| | | | |
| | | **FINANTZAKETA GUZTIRA** | **35.446,10** |

BIGARRENA: Jendaurrean ikusgai jartzea, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin-betikotzat joko da. Espediente honi Aurrekontu Orokorra onesteko ezarritako gainerako tramiteak eman beharko zaizkio.

***SEIGARREN PUNTUA***
**BESTE BATZUK**

Ez dira aurkezten.

***ZAZPIGARREN PUNTUA***
**ERREGU, GALDERAK ETA MOZIOAK**

Ez dira aurkezten.

Beste gairik ez dagoenez, arratsaldeko 12:30 orduak direnean Alkate andreak bilera amaitutzat ematen du, nik, behin-behineko Idazkaria naizen honek akta honetan jasotakoa ziurtatzen dudalarik.